

a Entzumena Gai naiz...	
a.1.-... hizketaldi edo elkarrizketa luze samarra jarraitzeko, nahiz eta argi egituratuta egon ez, edo ideien arteko erlazioak argiak izan ez.	Irratiko elkarrizketa informala, prestatu gabea
a.2.-... ahozko esaera eta esapide ugari ulertzeko, estilo eta tonu aldaketak ezagutzeko.	Irrati nobelak (Xanti taxia), bertso afariak
a.3.-... iragarki publikoen bidez zabalduko informazioa jasotzeko, transmisioaren kalitatea txarra bada ere (esaterako, geltoki batean).	Iragarki guztiak, telefonoz emandako azalpenak, makina batek emandakoak...
a.4.-... informazio tekniko konplexuak ulertzeko, esaterako produktu edo zerbitzu ezagunen argibideak edo funtzionamendua.	Etxeko edo autoko aseguruia egiteko; telefonoz zerbitzuren bat kontratatuzeko (mingain elektronikoa)
a.5.-... nire laneko edo ikasketa-arloko hitzaldiak edo aurkezpenak ulertzeko, edukiaren zein formaren aldetik konplexuak izan arren.	Teknopolis bezalako saio zientifiko dibulgatiboak
a.6.-... , ahalegin handiegirik gabe, filmak ulertzeko, argota edo esapide askotxo agertu arren.	Film bateko elkarrizketak euskara estandarrean, gaia edozein dela. Argudio konplexuak dituztenak salbu (epailetak, adibidez)
b.- Irakurmena Gai naiz...	
b.1.-... testu zorrotzak eta luzeak zuzen ulertzeko eta ahoz laburtzeko.	Argia aldizkaria, Elhuyar aldizkaria, berria egunkariko edozein ata: kirola, ekonomia, politika, artea eta kultura...
b.2.-... txosten zehatzak, analisiak eta iruzkinak irakurtzeko, iritziak, ikuspuntuak eta ideia-loturak ulertuz.	Testu liburu guztiak batxilergokoak ere bai. Sindikatuetako txostenak.
b.3.-... neure arloan, goi mailako testuak ulertzeko (esaterako, ikerketa txostenak) eta bertatik informazioak, ideiak eta iritziak ateratzeko.	Aldizkari ofiziala.
b.4.-... argibide luze samarrak eta konplexuak ulertzeko, esaterako tresna berri baten erabileraz, nahiz eta neure laneko edo intereseko arloekin zerikusirik ez izan, beti irakurtzeko denbora nahikoa badut.	Interneten zerbitzuren bat kontratatuzeko, etxeko edo autoko aseguruia ulertzeko. Udaleko eskutitzak, bankuetakoak...
b.5.-... gaur egungo literatur testuak erraz irakurtzeko, argumentuaz haratago joateko eta barneko mezuak, ideiak eta loturak harrapatuzeko.	Best-seller modukoak (Harri Potter, Atxagaren gehienak, ... eta ez literatur esperimentalekoak.
b.6.- Gai naiz edozein motatako gutunak irakurtzeko, inoiz hiztegia erabilia.	Banketxetakoak, telefonia enpresetakoak, udaletakoak...
c.- Elkarrizketa Gai naiz...	
c.1.-... jatorrizko hitzunen arteko elkarrizketa bizi batean zuzenean parte hartzeko.	Ez badira euskalkian, edota hitanoan.
c.2.-... erraz, zuzen eta egoki hitz egiteko gai askoren gainean: gai orokorrak, lan esparrukoak, akademikoak eta zientifikoak.	Edozein gai hartuta; beti ere gai horri buruz zerbait esateko badut.
c.3.-... jendartearen modu malgu eta eraginkorrean hitz egiteko, sentimenduak azalduz, zeharkako aipamenak eginez edo umorea erabiliz.	Gai bati buruz ezer ez dakidanean ere, zerbait orokorragoa esateko, gaia aldatzeko,...
d.- Ahozko adierazpena Gai naiz...	
d.1.-... argi eta zehatz hitz egiteko, xehetasun eta guzti, gaiak zailak eta bihurriak badira ere.	Gai horiek gizarte gai orokorrak izango dira eta ez egunerokotasunekoak
d.2.-... testu luze eta bihurriak ahoz laburtzeko.	Aldizkari bateko (argia, berria) laburpena egiteko.
d.3.-... zerbait luze eta zabal azaltzeko, gaiak uztartuz, zenbait aspektu berezi garatuz eta bere hizketaldia egoki amaituz.	Eskola emateko, laneko egoera azaltzeko, gaixotasun baten alderdiak azaltzeko...
d.4.-... lan-esparru edo arlo pertsonaleko gaiak argi egituratuta aurkezteko, prestatutakotik aldentuz eta entzuleen galderei bat-batean erantzunez.	Eskola emateko, laneko egoera azaltzeko, gaixotasun baten alderdiak azaltzeko...
e.- Estrategiak Gai naiz...	
e.1.-... loturazko esapide egokiak erabiltzeko, hitza	Etenaldi luzeak egin gabe eta diskurtsoan dispartsiarik gabe.

hartzen dudanean edota hitza galdu gabe pentsatzeko denbora irabazi nahi dudanean.	Testuari osotasuna emanda, ez eskema hutsa.
e.2.-... neure hizketaldia besteen hizketaldiekin egoki lotzeko.	Hizkera desberdinetako jendearen aurrean ez isildu, eztabaida batean, esate baterako. Gaiari buruz jakin ez eta, hala ere, zerbait esan.
e.3.-... gogoratzen ez dudan hitz bat antzeko batez ordezkatzeko, entzuleei arreta galarazi gabe.	Erdarazkoa ez dena.
f.- Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak Gai naiz...	
f.1.-... jario onez eta bat-batean espresatzeko; zaila eta abstraktua den gairen batek bakarrik sor diezadake oztoporen bat neure hitz jarioan.	Gaia berezia izanda ere, komunikabideetan agertzen dena jarraitzeko eta bere iritzia emateko gai izan. Gai abstraktuak: zer da fedea, boterea, artea,
f.2.-... gauzak argi, erraz eta ongi egituraturik adierazteko; esan nahi dudana adierazteko behar diren baliabideak menperatzen ditut, hau da, ideiak eta espresioak lotzen ditut eta testu koherenteak sortzen ditut	Bat-batean, eztabaidetan parte hartu. Prestatzeko debora emanez gero, ahoz 8 minutuz hitz egin eta idatziz 300 hitzeko idazlana egin.
f.3.- Lexiko zabala daukat eta hutsuneak arazorik gabe konpon ditzaket perifrasi baliatuz; oso gutxitan bilatu era nabarmenean hitz jakinen bat; oso gutxitan uko egin behar izaten diot esan nahi dudana zehatz esateari.	Hiztegi orokorra eskatzen duten edozein gaietan arazorik gabe aritu eta hiztegi espezifikoak eskatzen duten gaiak, prestatzeko denbora emanez gero. Baita erregistro ezberdinak erabiltzeko eta bereizteko gai ere.
f.4.-... zuzentasun gramatikalaren goi mailan jarduteko; oso akats gutxi egiten ditut.	Egitura eta forma desberdinak erabiltzeko gai izan. Ideiak lotzeko adierazpide linguistikoak menperatu behar ditu.
g.- Idazmena Gai naiz...	
g.1.-... idatzi argiak eta irakurterrazak egiteko, gai askoren gainean, orokorrak zein lan esparrukoak.	300 bat hitz idatziko du. Gai orokorrak gizarte gaiak izango dira: ekologia, hezkuntza, lan arloa, etxebizitza, osasuna. Lan esparrukoak ez zaizkie argitaratzeko mailarik eskatuko, baizik eta lankideen arteko informazioa emateko..
g.2.-... gai zailak ere erraz eta ongi egituratuta aurkezteko, puntu nagusiak azpimarratuz, esaterako idazlanetan edo lan txostenetan.	Gai zailak (trama dutenak, kokaleku edota iritzi asko dutenak) "leuntzeko" edo "errazteko" gaitasuna egitura-baliabideak erabiliz: sarrera eta bukaera argiak, kokalekua edo iritziak aurre azalduz...Irakasleek gaiak azaltzeko erabiltzen dituzten teknikak.
g.3.-... gertaera edo gai jakin baten iruzkina egiteko ikuspuntu ezberdinak azalduz, ideia nagusiak azpimarratuz eta neure arrazonamenduak adibide zehatzez argituz.	Komunikabideetako berri baten aurrean: istilu larriak, leherketa baten inguruan, ...
g.4.- Gai naiz hainbat iturburutako informazioa idatziz ulertzeko eta era koherentean laburtzeko.	Gizarte gai bati buruz aditu baten iritzia ulertzeko eta laburtzeko, ...
g.5.-... eskutitz pertsonaletan sentimenduak, esperientziak eta gertaerak zehaztasunez deskribatzeko.	Haiek bizitutako egoera bat denean: istripua, oporrak, amodiozko esperientziak, ...
g.6.-... gutun formalak zuzen idazteko, adibidez, eskaera egiteko, kexa azaltzeko edota ikuspuntu baten alde edo aurka azaltzeko.	Gaia hurbila edo bere lan esparrukoa denean.
g.7.-... zuzentasun handiko testuak idazteko eta neure lexikoa eta idazkera moldatzeko, jasotzailearen, testu motaren eta gaiaren arabera.	Lagun bati edo nagusi bati bidali behar zaion idazkia bereizteko, hau da, hartzailera egokitzeko gai izan.